
01 10
“GAZTELU” PETROLIO ZUNDAKETAK

Hainbat hamarkadez, Arabako lurraldeetan behin eta berriro saiatu ziren petrolio edo gas naturaleko putzuak lortzen, ekonomikoki ustiatu ahal izateko. Hamaika saiakera egin arren, aurkitu zutena arrastoak edo gas poltsa txikiak besterik ez ziren izan. 55 zundaketa horien adibide gisa, “Castillo” izeneko multzo bat eratu zen, egun, Gaztelu deituta, Vitoria-Gasteiz udal mugartearen barruan. Bertan, saiakerekin jarraitu zuten, ondoren “Armentia 1” zundaketarekin (1997).





1. Gaztelu Zundaketa.

Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 526704 m //Y: 4738841 m // Z: 659 m Gazteluko HMtik 500 metrora kokatuta (Vitoria-Gasteiz) 1959 eta 1961. urte artean egindako 4.349 m sakoneradun zundaketa. Gas aztarnategi txikia ustiatu zen eta haren biez gasa hornitu zitzaion bi enpresari 1963 eta1981. urte artean. Gaur egun, horren inguruan abeltzaintza granja bat dago.



2. Gaztelu Zundaketa.

Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 526640 m // Y: 4737006 m // Z: 759 m Gazteluko Hegoaldetik 2.200 metrotara kokatuta (Vitoria-Gasteiz), 1960ean egindako 3.498 m sakoneradun zundaketa. Gas aztarnategi txikia 1. Gazteluarekin batera ustiatu zen, eta gasbidea partekatu zuten 1963 eta 1981. urte artean. Zundaketaren zonaldean, gaur egun, abeltzaintzako granja bat dago.



3. Gaztelu Zundaketa.

Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // : 526144 m //Y: 4740751 m // Z: 577 m Gardelegiko hegoaldetik 500 metrotara kokatuta dago (Vitoria-Gasteiz),1964. urtean egindako 2.468 m sakoneradun zundaketa. Emaitza positiborik gabe. Hura baztertu ondoren, edukiontzi gordeleku eta legar biltegi moduan erabili izan zen.



4. Gaztelu Zundaketa

Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 528878 m // Y: 4736402 m // Z: 669 m Castillo (Gaztelu) Gasteizeko herriko hego-ekialdetik 3,37 metrotara kokatuta. 1966. urtean egindako 3.290 m sakoneradun zundaketa. Ez zuen emaitza positiborik izan. Gaur egun, zonalde hau utzita dago eta basoan argiune bat sortzen du, hormigoizko zabalgunea barne kontserbatzen delarik.



Ortofoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 522087 m // Y: 4738956.m // Z: 718 m. "5. Gaztelu" Zundaketa 1. Zundaketaren zabalgunea. 2. Dekantazio baltsa.

Txertaketa: Ortofoargazkia 1984/85. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

"5. Gaztelu" Zundaketa.

Gometxako hegoaldetik 2 kilometrora eta Eskibeleko Hego-mendebaldetik kilometro 1era kokatuta dago (Vitoria-Gasteiz).CIEPSA enpresak zundaketari 1972ko apirilaren 13an ekin egin zion eta 1973ko abenduaren 3an amaitu zuen, 5991 metro zulatu ondoren, alegia; Araban egindako sakonena. Gaur egun, hormigoiez estalitako zabalgunea eta zundaketaren dekantazio baltsaren aztarnak kontserbatzen dira, zabalguneko mendebaldetik 130 metrotara kokatuta.



5-Gaztelu zundaketaren zabalgunea.



Zabalgunean ipinitako kartela: 5-Gaztelua.

Gehiago jakiteko: La búsqueda de petróleo en Álava / Kepa Baquedano. Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. - 106 p.